

Eranskin honetan ezarritako jarraibideek deialdiaren oinarrietan jasotako en garrantzi eta baliotasun bera izango dute.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa kasu guztietan:

- Erantzukizunpeko Adierazpena legezko ordezkariarengatik sinatuta eta zigiluarekin.
- Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean dituztelako ziurtagirien fotokopiak.
- Ekonomia-jarduera foru ogasunean alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiri eguneratuaren fotokopia (EJZ).

Autonomoek:

- Indarrean dagoen IFKaren fotokopia.
- Gizarte Segurantzaren autonomoen araubideko altaren fotokopia edo Gizarte Segurantzako oraingo egoeraren ziurtagiria.

Pertsona juridikoek:

- Indarrean dagoen IFKaren fotokopia.
- Eraketa-eskrituren fotokopia.
- Ordezkaritza-botereen fotokopia.
- Indarrean dagoen legezko ordezkariaren IFZren edo AIZren fotokopia.

Sozietate zibilek, ondasun-erkidegoek edo beste elkarte batzuk:

- Indarrean dagoen IFKaren fotokopia.
- Eraketa-eskrituren fotokopia edo estatutuena edo behar bezala erregistratutako eraketa-kontratua
- Ordezkaritza-botereen fotokopia.
- Indarrean dagoen legezko ordezkariaren IFZren edo AIZren fotokopia.

Eskabideak eta dokumentazioa Bilbao Ekintza EPELeke Enpresa Sustapeneko Arloari (Enplegua eta Talentua) zuzenduko zaizkio Bilbako Ekintzaren webgunean horretarako gaitutako plataformaren bitartez. Horrez gain, plataforma horretan eskatzen diren betekizun eta baldintza teknikoak bete beharko dira.

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko urriaren 1eko 10:00etan hasiko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, eta 2019ko urriaren 11ko 15:00etan amaituko da.